



Urriaren 5

KREAZIOAREN ALDIA

Sarrerako oharpena

Gaur, irailaren hasieratik Elizan ospatu den Kreazioaren Aldiaren amaiera dugu. Aldi hori amaitzeko, Eukaristia ospatuko kreazioaren zaintzaren alde, Aitari ematen digun guztia eskertzeko intuizio ebanjelikoa otoitz bihurtuz. Leon Aita Santuak mundua Jainkoaren dohain gisa ikustera gonbidatzen gaitu, haren edertasunagatik eskerrak ematera eta hura zaintzeko konpromisoa hartzera, izaki guztiekin bat eginez.

Eukaristia honetan gure otoitza unibertso osoaren laudorioarekin batzen dugu, jakitun izanik, san Agustinek gogoratzen zuen bezala, “Jainkoaren egintzek Bera goresten dute guk maita dezagun, eta maite dugu bere egintzek Bera gorets dezaten”.

Damu-otoitza

Jesu Kristo, bekaturik ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaitzen.

- Zeru-lurrak sortu eta zure aintzaz bete dituzuna: Erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
- Kreazioaren lehen- seme zaren horrek, gizadia zurekin adiskidetu duzuna: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
- Lurrazala berritzeko Espiritua bidaltzen diguzuna: Erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.
R. Amen.



Jainkoaren herriaren otoitza

Izaki guztiekin eta munduan zehar zabaldutako Elizarekin bat eginez, konfiantzaz Sortzaileari gure otoitza aurkez diezaiogun, guztion salbamenerako eta guztion etxearen zaintzarako eskatuz.

1. Elizaren alde, leialtasunez hots egin dezan kreazio osoa Kristogan adiskidetua izan dela eta irakats dezala Jainkoaren sorkuntza maitasunez zaintzen. Eska diezaiogun Jaunari.
2. Herrietako arduradunen alde, erabaki ausartak eta zuzenak har ditzaten ingurugiroaren eta pertsona zaurgarrienen alde, eta garapen gizakorra eta iraunkorra bultzatzen. Eska diezaiogun Jaunari.
3. Zientzialari, ikertzaile, hezitzaile eta komunikatzaileen alde, jakinduriaz eta arduraz lagun dezaten gizartean ekologia oso baten kontzientzia esnarazten. Eska diezaiogun Jaunari.
4. Behartsuen eta baztertuen alde, klima aldaketak eta hondamen naturalek kaltetutako elkarleen alde, zailtasunen erdian laguntza solidarioa eta itxaropena aurki ditzaten. Eska diezaiogun Jaunari.
5. Eukaristian parte hartzen dugunon alde, kreazio osoarekin harmonian bizitzen ikas dezagun, beronengan Jainkoaren ontasunaren isla aitortuz. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko ahalguztiduna, mundua jakinduriaz sortu zenuen eta gure esku utzi zenuen bere zaintza; entzun gure otoitzak eta eralda itzazu gure bihotzak, zure kreazioaren zaintzaile leial izan gaitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amén.



5 de octubre

TIEMPO DE LA CREACIÓN

Monición de entrada

Hoy, celebramos la conclusión del Tiempo de la creación que se ha celebrado en la Iglesia desde inicios de septiembre. Concluimos ese tiempo celebrando la Eucaristía por el cuidado de la creación, haciendo oración la intuición evangélica de agradecer al Padre todo lo que nos da. El papa León, nos invita a contemplar el mundo creado como un don de Dios, a dar gracias por su belleza y a comprometernos en su custodia, en comunión con todas las criaturas.

En esta eucaristía unimos nuestra oración a la alabanza del universo entero, conscientes de que, como recordaba san Agustín, “las obras de Dios le alaban para que le amemos, y le amamos para que sus obras le alaben”.

Monición de entrada

Jesucristo, el justo, intercede por nosotros y nos reconcilia con el Padre. Abramos, pues, nuestro espíritu al arrepentimiento para acercarnos a la mesa del Señor.

— Tú, que has creado el cielo y la tierra y los has llenado de tu gloria: Señor, ten piedad.

℟. Señor, ten piedad.

— Tú, Cristo, primogénito de toda criatura, que has reconciliado el universo contigo:

℟. Cristo, ten piedad.

— Tú, que nos envías el Espíritu para renovar la faz de la tierra: Señor, ten piedad.

℟. Señor, ten piedad.

Dios todopoderoso tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados y nos lleve a la vida eterna. ℟. Amén.



Oración universal

En comunión con todas las criaturas y con la Iglesia extendida por el mundo, elevemos al Creador nuestra oración confiada, pidiendo por la salvación de todos y por el cuidado de la casa común.

1. Por la Iglesia, para que anuncie con fidelidad que toda la creación ha sido reconciliada en Cristo y enseñe a custodiar con amor la obra de Dios. Roguemos al Señor.
2. Por los responsables de las naciones, para que tomen decisiones valientes y justas en favor del medio ambiente y de los más vulnerables, y promuevan un desarrollo verdaderamente humano y sostenible. Roguemos al Señor.
3. Por los científicos, investigadores, educadores y comunicadores, para que con sabiduría y responsabilidad ayuden a despertar en la sociedad una conciencia ecológica integral. Roguemos al Señor.
4. Por los pobres y excluidos, por las comunidades más afectadas por el cambio climático y por quienes sufren catástrofes naturales, para que encuentren ayuda solidaria y esperanza en medio de la adversidad. Roguemos al Señor.
5. Por nosotros, que participamos en esta Eucaristía, para que aprendamos a vivir en armonía con todas las criaturas, reconociendo en ellas un reflejo de la bondad de Dios. Roguemos al Señor.

Dios todopoderoso, que diste origen al mundo con sabiduría y nos encomendaste su cuidado, escucha nuestras súplicas y transforma nuestros corazones, para que seamos fieles guardianes de tu creación. Por Jesucristo, nuestro Señor. *Rx*. Amén.